Galdakaoko Udala

DEKRETUA / DECRETO

Iñigo Arandiaga Hernando (1, guztira 1)
Alkatea / Alcalde-Presidente
Sinaduraren data: 23/10/2026
HASH: 971d3fb07bbfb69665c2d8cea60fb2964

Espediente zk./ Expediente nº: 9063/2026
Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen
Prozedura/ Procedimiento: Kontratazioak/ Contrataciones
Espedientearen gaia/ Asunto del Expediente: Prozedura Irekia / Procedimiento Abierto - OBRAS PARA EJECUCIÓN DE ASCENSOR EN CALLE ZUBIAURRETAURREN

EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

Kontratazio-espedientea onestea	Aprobación de expediente de contratación
Udaleko Arlo Teknikoak jakinarazi du beharrezkoa dela **"GALDAKAOKO UDALERRIKO ZUBIAURRETARREN KALEAN IGOGAILUA JARTZEKO OBRAK"** egiteko kontratua. Kontratuaren balio zenbatetsia 426.619,56 eurokoa da (BEZik gabe).	Por el Área Técnica del Ayuntamiento se ha informado de la necesidad del contrato para las **"OBRAS PARA LA EJECCUCIÓN DEL ASCENSOR EN LA CALLE ZUBIAURRETARREN EN EL MUNICIPIO DE GALDAKAO"** cuyo valor estimado total asciende a 426.619,56 (IVA excluido).
2026/2416 Dekretuaren bidez, aipatutako kontratuaren proiektua onetsi da.	Por Decreto 2416/2026 se aprueba el proyecto del contrato arriba mencionado.
Proiektuaren berrikuspen-txostena ageri da espedientean, 2026ko urriaren 16koa.	Consta en el expediente Informe de Supervisión de Proyecto de fecha 16 de octubre de 2026.
Halaber, zuinketa-akta ageri da espedientean, 2026ko urriaren 19koa. Horien bidez, ezarri da egiaztatuko dela lursailak eskuragarri daudela eta obraren errealitate geometrikoa bat datorrela SPKLn jasotakoarekin, kontratazio-espedientea onesteko.	Así mismo, consta en el expediente Acta de Replanteo de fecha 19 de octubre de 2026. En las mismas se establece la comprobación de la disponibilidad de los terrenos y la realidad geométrica de la obra conforme exige la LCSP para la aprobación del expediente de contratación.
Udaleko kontu-hartzaileak txostena egin du adierazteko indarreko udal-aurrekontuan badagoela kreditu nahikoa eta egokia aztergai dugun kontratazioa izapidetzeko.	Existe informe de la Interventora municipal de existencia de crédito suficiente y adecuado en el Presupuesto municipal vigente para tramitar la contratación que nos ocupa.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-2438 Data: 23/10/2026

Baliozkotze Kod.: 5G9SYC3PXSJS3LZPQGHGTK9N3
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 4

Kontratazioko teknikari(a)k txosten juridikoa egin du aztergai dugun kontratazioari buruz, eta idazkari nagusiaren adostasun-oharra gehitu da, zeina SPKLren 3.8. xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera egin baita, bat etorriz 128/2018 Errege Dekretuaren (Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenaren) 3.4. artikuluan ezarritakoarekin.

La Técnica de Contratación emite informe jurídico sobre la contratación que nos ocupa, con nota de conformidad del Secretario General emitida en virtud de los dispuesto por la D.A. 3ª, 8 de la LCSP en relación con lo previsto en el artículo 3.4 del RD 128/2018 por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de habilitación de carácter nacional

Kontratu hau obren kontratu gisa kalifikatu behar da, SPKLren 13. artikuluan jasotakoaren arabera. Bestalde, ez da erregulazio harmonizatuko kontratua, haren balio zenbatetsia 5.538.000 eurotik beherakoa baita, bat etorriz SPKLren 20.1.artikuluan xedatutakoarekin.

El presente contrato debe calificarse como de Obras, de conformidad con lo preceptuado en el art. 13 de la LCSP. De otra parte, no se trata de un contrato sujeto a regulación armonizada, al ser su valor estimado inferior a 5.538.000 euros, de conformidad con lo dispuesto en el art. 20.1.de la LCSP.

Espediente honetan SPKLren 156. artikulutik 158. artikulura bitartean araututako prozedura irekia proposatu da. Horren bidez, enpresaburu interesdun orok proposamen bat aurkeztu ahal izango du, eta pleguan adjudikazio-irizpide bat baino gehiago ezarriko da, zeinak ekonomikoak eta kualitatiboak izango baitira.

En este expediente se propone la utilización del procedimiento abierto regulado en los artículos del 156 al 158 de la LCSP, en el que todo empresario interesado podrá presentar una proposición, y estableciéndose en el Pliego más de un criterio para su adjudicación, siendo estos económicos y cualitativos.

Alkatetza honek eskumena du, kontratazio-organoa den heinean (SPKLren 2.1. xedapen gehigarria).

Corresponde a esta Alcaldía la competencia como órgano de contratación (D.A. 2ª,1 de la LCSP).

2026ko urriaren 22a(e)ko PR/2026/3355 ebazpen proposamena ikusita, 2026ko urriaren 23a(e)an aldeko fiskalizazioa jaso zuena./ Vista la propuesta de resolución PR/2026/3355 de 22 de octubre de 2026 fiscalizada favorablemente con fecha de 23 de octubre de 2026.

EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

XEDATU DUT:

DISPONGO:

Lehenengoa.- Honako hauek onetsiko dira: espedientea, administrazio-baldintza berezien plegua eta baldintza teknikoen plegua (proiektuan jaso da); horiek guztiak aipatutako kontratuari dagokionez, zeinaren xedea **"GALDAKAOKO UDALERRIKO ZUBIAURRETARREN KALEAN IGOGAILUA**

Primero.- Aprobar el expediente, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, y el Pliego de Prescripciones Técnicas (contenido en el Proyecto) del contrato, que tiene por objeto las **"OBRAS PARA LA EJECCUCIÓN DEL ASCENSOR EN LA CALLE ZUBIAURRETARREN EN EL MUNICIPIO DE**

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-2438 Data: 23/10/2026

Baliozkotze Kod.: 5G9SYC3PXSJS3LZPQGHGTK9N3
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 4

JARTZEKO OBRAK" baita. Kontratua prozedura irekiaren bidez, adjudikatzeko irizpide ugarirekin eta izapidetze arruntarekin emango da; gehieneko aurrekontua 516.209,67 eurokoa da, (BEZaren % 21 barne).

GALDAKAO", por el procedimiento abierto, con multiplicidad de criterios de adjudicación y tramitación ordinaria, cuyo presupuesto máximo asciende a la cantidad de 516.209,67 € **(21% IVA incluido)**.

Bigarrena.- Kontratuaren arduradun izendatuko da obren zuzendari fakultatiboa (SPKLren 62.2. artikulua).

Segundo.-. Designar responsable del contrato al Director Facultativo de las obras (art. 62.2 LCSP).

Hirugarrena.- Baimenduko da 516.209,67 euroko gastua, indarreko udal-aurrekontuko gastuen egoera-orriko 31 1533 62302 partidaren kargura, eta kontratuak barne hartzen dituen ekitaldiei dagokien kreditu-konpromisoa ezarri beharko da.

Tercero.- Autorizar un gasto de 516.209,67 euros con cargo a la partida 31 1533 62302 del Estado de Gastos del presupuesto municipal en vigor, debiendo comprometerse crédito para los ejercicios a los que afecte el contrato.

Laugarrena.- Lizitazioa deituko da; horretarako, dagokion iragarkia argitaratuko da Galdakaoko Udaleko kontratatzailearen profilean, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman. Eskaintzak aurkezteko **26 egun naturaleko** epea ezarriko da, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epearen azken eguna egun baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Cuarto.- Convocar la licitación, a cuyo efecto se publicará el correspondiente anuncio en el Perfil del Contratante del Ayuntamiento de Galdakao, alojado en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi. Se establece un plazo para la presentación de ofertas de **26 días naturales**, contados a partir del siguiente al de la publicación del anuncio en el Perfil del Contratante. Si el último día del plazo fuera inhábil se prorrogará al primer día hábil siguiente.

Bosgarrena.- Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta interesdunek BI HILABETEKO epean, ebazpena kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatuta, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA jarri ahalko dute horren aurka Bizkaiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bai eta lizitazioaren iragarkiaren, pleguen eta kontratuari lotutako gainerako dokumentuen aurka ere; hori guztia, bat etorriz honako hauetan ezarritakoarekin: 29 /1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena (8. eta 46. artikuluak); eta 39 /2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (114.1.c) artikulua).

Quinto.- Contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, el anuncio de licitación, los pliegos y resto de documentación contractual podrán las personas interesadas interponer, en el plazo de DOS MESES contados desde el día siguiente a su publicación en el perfil del contratante, RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Bizkaia que corresponda, según lo establecido en los arts. 8 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el art. 114.1.c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-2438 Data: 23/10/2026

Baliozkotze Kod.: 5G9SYC3PXSJS3LZPQGHGTK9N3
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 4

Hala ere, nahi izanez gero eta aurreko paragrafoan aipatu den administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA jarri ahal izango da ebazpena eman duen organoan, HILABETEKO epean, ebazpena kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

No obstante, con carácter potestativo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, se podrá interponer RECURSO DE REPOSICIÓN, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de UN MES que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la publicación en el Perfil del Contratante.

Hori guztia bat dator lehen aipatutako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan ezarritakoarekin. Nolanahi ere, nahi duenak bere eskubideak defendatzeko egokitzat jotzen duen beste edozein errekurtso jar dezake edo zernahi egin dezake.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 123, 124 y concordantes de la Ley 39 /2015, de 1 de octubre, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-2438 Data: 23/10/2026

Baliozkotze Kod.: 5G9SYC3PXSJS3LZPQGHGTK9N3
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 4